

Amenabar eraikuntza enpresak BLD aurka jarritako salaketaren aurrean konzentrazioa Berangon

BERANGO LURRAREN DEFENTSAN :: 21/05/2021

[Euskara]

Amenabar eraikuntza enpresak salaketa jarri dio Berango Lurraren Defentsan taldeko kide bati eta gainontzeko kideak identifikatzeko eskatu dio poliziari. Taldekide guztiak epaitu nahi dituzte "daños y coacción" delituak leporatuz.

Amenabar-en bulegoan kartelak itsastea egotzi nahi diete BLD taldekoei. Ez zutenez inor harrapatu itsasketa egiten, prentsan hitz egin duen kide baten izena hartu dute salaketarako.

Gainera, BLD taldearen sare sozialak erabili dituen edonor identifikatu eta epaitu nahi dute. Horretarako ordenagailuen IP helbideak eskatu dituzte.

BLD-ko kideak epaitegian deklaratu behar izan du eta oraingoz kasua artxibatu da ordenagailuen IP-ak lortu arte.

Lurrik ilegalki saltzeak ez du ondorio legalik baina horren inguruan informatzeak bai? Herritarren aurkako jazarpenik ez! Benetako gaizkileak Udal gobernuan eta espekulatzaileen artean daude.

Barikuan 19:00etan kontzentrazioa Sabino Arana kalean; Amenazas-en aurrean herritarrok tinko!

[Castellano]

La constructora Amenabar ha denunciado a un miembro del grupo Berango Lurraren Defentsan y ha pedido a la policía que identifique al resto de sus integrantes. Quieren juzgar a todos los miembros del grupo por delitos de "daños y coacción".

Se pretende acusar a los miembros de BLD de pegar carteles en la oficina de Amenábar. Al no haber capturado a nadie haciendo la pegada, han tomado el nombre de un miembro que ha hablado en la prensa para poner la denuncia.

Además, quieren identificar y juzgar a cualquiera que haya utilizado las redes sociales del grupo BLD. Para ello están investigando las direcciones IP de los ordenadores.

El miembro de BLD ha tenido que declarar en el juzgado y de momento se ha archivado el caso hasta que se obtengan los IPs de los ordenadores.

¿Vender terrenos ilegalmente no tiene consecuencias legales pero informar al respecto sí?

¡No al acoso a la ciudadanía! Los verdaderos delincuentes están en el gobierno municipal y entre los especuladores.

A las 19:00 concentración en la calle Sabino Arana; frente a Amenazas, los ciudadanos firmes!

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/amenabar-eraikuntza-enpresak-bld-aurka